INGURUMEN POLITIKA

Gure erakundearen helburura eta testuingurura egokitutako politika da; gure jarduera, produktu eta zerbitzuen neurriarekin eta ingurumen-inpaktuarekin koherentea.

Hurkoak beti izan du ingurumenaren kezka. Aspalditik dugu inguruneari kasu egiteko eta errespetatzeko helburua gure estrategian txertatuta; egiten ditugun jarduerak arduraz egiten ditugu; Gizarte Erantzukizuna izateko prozesua egiten dugu, eta garapen jasangarriko jardunbideak sustatzen ditugu.

Klima aldaketaren eta berotze globalaren ondorioak begi-bistakoak izaten hasita daude, eta erasan hori murrizteko hartu behar diren neurriak hartuko ditu Hurkoak.

Horiek dira gure ingurumen-politikaren oinarriak, eta hauek Hurkoaren zuzendaritzak hartu dituen konpromisoak:

1. Ingurumen balioa benetan sortzen duten planak garatzea kudeaketa-sisteman, ekosistemak eta ingurumena babesten laguntzeko moduko ekintzak txertatuta.
2. Aplikatzekoak diren lege eta araudiak betetzea (nazioartekoak, Europakoak, estatukoak, autonomikoak eta tokikoak).
3. Ingurumen aldetik dugun portaera etengabe hobetzea eta kutsadura prebenitzea bermatzea, kudeaketa-sistemak eguneratu eta haien jarraipena eginez.
4. Ingurumen aldetik arduraz jarduteko kultura bultzatzea, horretarako izan behar diren baliabideak emanez.
5. Dugun ingurumen politika eta kudeaketa sistema zabaltzea gure boluntario, langile, erabiltzaile eta interes-taldeen artean.
6. Diskurtso positiboa izan eta ingurumenera hurbiltzeko eta hura babesteko konbentzitzea, motibatzea eta inspiratzea.
7. Ingurumen politika bat eta helburu batzuk jartzea, eta segurtatzea Hurkoaren testuinguruarekin eta plan estrategikoarekin bat egiteko modukoak izatea haiek.
8. Ingurumen-kudeaketako sistemarako aurreikusitako emaitza guztiak lortuko direla ziurtatzea.
9. Aldian aldian ingurumen politika berrikusi eta, gorabehera batzuk izan eta hala eskatzen badute, egokitzea politika hori antolakuntza edo ingurune eskakizun berrietara.

Donostia, 2024eko martxoaren 4a.